



32. zEnbakia
zOkomirOna... zER dago
ilunEtan, aMonA?

0. AZALA

Nor agertzen zaigu otsaileko azalean? Eta non dagoela uste duzue? Ilunpetan ari zaigu Lore! Baina zertan? Zergatik dago ilunpetan? Bakarrik al dago?... Galdera horiek eta bururatzen zaizkizun beste hainbat egin ahal dizkiozu zure haurrari. Bion artean eta azalak eskaintzen digun irudi interesgarri eta politaz baliatuz, elkarriketa eta behaketa interesgarria sor dezakezue bion artean! Ekin, bada, lanari eta gozamenari!

1. AURKIBIDEA

Estrategia hau proposatzen dizugu aurkibidea lantzeko:

- Eskuinean dagoen testuan 'Zokomirona' hitza ageri zaigu, ezta?
- Bada, hartu hitz hori eta jarri haurraren mutur aurrean idatzirik, letra larriz eta koloreztatuta! Etxetik edo nahi duzun tokian!
- Hitza mutur aurrean duela, egin galdera hauek:
 - Badakizu zer esan nahi duen? Seguruenik ez du jakingo; hitzaren esanahia, alegia, testuan dioena etxeko tokiren batean ezkutatu, eta eskatu aurkitzeko. Altxorraren bila jolastu!

2. PUPU ETA LORE

Atal honetan, hau proposatzen dizugu:

- Irakurri haurrari atal bakoitza, eta egin galdera hauek:
 - Zergatik galdetzeko joera duzu zuk?
 - Noiz galdetzen duzu zergatik?
 - Garrantzitsua dela uste duzu? Ez badu galdera ulertzen, azal iezaiozu zergatik galdetzearen garrantzia.



32. ZENbakia
ZOKOMIRONA... ZER dago
ILUNETAIV, amona?

3. PIRRITX ETA PORROTX ETA MARIMOTOX

Oraingo honetan, istorioaren azken orria irakurtzen hasiko gara. Zuk azken orria irakurriko diozu haurrari, eta haurrak, orri horretan ageri dena oinarri harturik, istorio bat asmatu beharko du. Istorioa orri batean adierazteko eskatu, nahi dituen irudiez lagunduz. Kontu izan istorioa zein den ez jakiteak berak haren JAKIN-MINA areagotuko duela!

Behin istorioa asmaturik, proposatu hasieratik irakurtzeko komikia, eta amaitzean galdera hauek egin:

- Horrelako istorio bat espero zenuen?
- Zer espero zenuen?
- Zer iruditzen zaizu Porrotxen jarrera?
- Horrelakoak egiten al dituzu zuk ere?
- Zuk ere berdin jokatuko zenuke? Zergatik?
- Beharrezkoa al da, zure ustez, pazientzia? Zergatik?

4. OSASUNA GURE ONDASUNA

Honela landu dezakezu Tiritatxoren atala:

- Esan honako hau haurrari:
 - Tiritatxo eta bere aholku magikoak! Magikoak zergatik? Gure bizitza hobetzen laguntzen digutelako!
 - Irakurriko ditugu bion artean haren aholku magikoak?
- Irakurri ondoren egin ditzakezun galderak:
 - Hauetariko zeintzuk egiten dituzu zuk?
 - Emango zenioke aholkurik zuk Tiritaxori?
 - ...



32. ZENbakia
ZOKOMIRONA... ZER dago
ILUVEtan, aMONa?

5. ELEFANTE BAT HEGAN

Ipuin hau zuk kontatu beharko diozu haurrari. Hala ere, oraingo honetan bitxikeria bat aurkeztuko diogu. Hona hemen gure aldetik proposatzen dizkizugun ideiak:

- Haurraren aurrean elefante maskara batekin agertu, eta esan:
 - Kaixooooo! Ni elefante hegaaaalaria naiz! Irakurri nahi duzu nire istorioa?
- Nahi izanez gero, beste animalia baten maskara egin haurrari eta esan jartzeko. Istorioan sartzeko baliagarria izan daiteke!
- Kontatu haurrari istorioa doinu eta intonazio egokiaz!
- Amaitzean, istorioa kontatzeko eskatu. Gustuko izan duen galdetu...
- Atalari amaiera polit bat emateko, istorioa irudikatzen duen marrazkia egin dezakezue bion artean.

Guztia amaitzean, galdetu ea ondo pasatu duen! Gogoratu oinarritzkoa dela haurrak gustuko dituen gauzak egitea! Bere barneko motibazioaz jarduten bada emaitzak ere positiboagoak izango baitira...

Eta ez ahaztu haurrari entzutea.... Izan ere, haren hitzetan aurkituko dituzu etorkizunean harekin egin ditzakezun ekintza eta jolasen inguruko arrastoak! Ez galdu, bada, arrasto horiek zure bidean!

6. LARGABISTA

Atal honetan, irteera bat egitea proposatzen dizuegu. Haurrari irteeraren berri emateko testua irakurri beharko duzue. Gero, honako galdera hauek egin ahal dizkiozu:

- Ikusi al duzu sekula astigarrik?
- Eta Astigarraga non dagoen badakizu?
- Erantzunak ezezkoak badira... haxe esan:
 - Gustatuko litzaizuke Astigarraga ezagutu eta, bide batez, astigarrak non dauden ikustera joatea?

Erantzuna baiezkoa bada, astebururako plana eginda daukazue!



32. ZENbakia
ZOKOMIRONA... ZER dago
ILUNETAN, AMONA?

7. ILUSTRAZIO ETA IPUIN LEHIAKETA

Atal hau lantzeko, hau proposatzen dizugu:

- Azaldu zaitez haurren aurrean prentsa saltzailea izango bazina legez, hau esanez: Prentsa, prentsa!!! Gaurko notizietan ilustrazio eta ipuin lehiaketa garrantzitsua Euskal Herrian! Prentsa, prentsa!
- Ea haurrak nola erreakzionatzen duen!
- Bigarren pauso gisa, erabili ordenagailua haurrari azaltzeko ilustrazioak zer diren eta, bide batez, erakutsi Interneten ilustrazio eta ipuin lehiaketen adibideak...
- Amaitzeko, proposatu berak gogokoen duen ipuinaren azaleko ilustrazioa egiteko!

8. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Atal honetako bertsoak irakurtzeko bertso saioa prestatzea proposatzen dizuegu!

Bertso saioa familiakoen aurrean egin beharko duzue, eta, horretarako, bertan agertzen diren eta zuek aukeratzen dituzuen bertsoak buruz ikasi eta kantatu beharko dituzue!

Buruz ikastea larregi iruditzen bazaizue, idatzi beste orri batean bertsoak, eta kantatu irakurritz!

Helburua bertsoen mundu zoragarrian murgiltzea da, eta, bide batez, momentu dibertigarri eta zoriontsuak igarotzea familiakoen inguruan!

9. AHUNTZA

Animaliak ezagutzeko, haiek gertutik ikusi eta ezagutzea da nolakoak diren jakiteko modurik onena! Nola egin dezakegu hori? Bada, animaliak dauden inguru batera gerturatuz! Nora?

Kasu honetan, ahuntza dugu testutxoan... Ahuntzak baserrietan edo mendian egoten dira askel! Beraz, testua irakurri ondoren, eta ahuntzak ezagutzeko asmoz, mendi irteera bat planifikatu dezakezue!

Testua bion artean irakur dezakezue. Irakurtzen hasi aurretik, galdera hauek egin ahal dizkiozu haurrari:

- Zein animalia dela uste duzu? Ezagutzen duzu?
- Zer dakizu ahuntzaren inguruan?



32. zEnbakia
zOkomirOna... zER dago
ilunEtan, aMonA?

- Badakizu non egoten diren?
- ...

10. FILOSOFO TXIKIAK

Atal hau lantzeko, hasierako orrian agertzen den galdera izango duzue mintzagai. Esaldia oinarri hartu eta familiakoekin mahai inguruan hausnartzea proposatzen dizuegu.

Familian gaiaren inguruan eztabaidatu eta gero, irakurri denon artean filosofoek zer dioten! Ikusi ea ezberdintasunen bat baden zuek esandakoaren eta haiek diotenaren inguruan. Galdetu haurrari filosofoen ideiekin bat datorren...

11. MARTINBERTSO

Atal honetan, esaldiak aztertzea proposatzen dizugu.

Lehenik eta behin, proposatu haurrari testua lasai eta bakarrik irakurtzeko, eta, ondoren, galdetu esaldi hauen inguruan zer ulertzen duen:

- Zalantza bat ateratzean beste bat atean.
- Mundua ez da dirudiena.
- Kanpoan desertua, barruan....
- Galdetu, burua goldatu.

12. LAGUN

Komikia irakurtzen hasi aurretik, esan haurrari ondoren adierazten dizkizugun emozioak testuan aurkitu eta identifikatzeko: Haserrea, harridura, kuriositatea eta barrea.

Ea identifikatzea lortzen duen!

Amaitzean, landu eta aztertu bion artean adierazi dizkizuegun emozioak!



32. ZENbakia
ZOKOMIRONA... ZER dago
ILUNETAN, AMONA?

13. MARIKALANBRE

Marikalanbreren istorioan murgiltzeko, zera proposatzen dizuegu:

Irakurri aurretik, galdera hauek egin haurrari:

- Irudiak ikusita, zer uste duzu kontatuko digutela oraingo honetan?
- Zer jartzen du izenburuan?
- Detektibeak zer diren badakizu? Zer egiten dute?

Ondoren, proposatu bion artean irakurtzeko istorioa.

Irakurtzen amaitzean, esaldi hau landu haurrarekin: Gure jakiteko grina ez dadila bihurtu haien mina.

- Zer esan nahi du esaldi horrek?

14. ZENBATAK

Zenbaten komikiak ez du asko irakurtzeko, baina irudiak bitxiak eta bereziak dira. Betiko margoekin margotu beharrean, beste moduren batera margoturik daude, ezta? Aztertu bitxikeria hori haurrarekin. Ea zeri buruz hitz egiten amaitzen duzuen! Gogoan izan garrantzitsua dela haurrarekin gai askori buruz mintzatzea... eta ez ahaztu noizean behin irakurketatik atsedentxo bat hartzea ere beharrezkoa dela oso!

15. MUNDUAK GUZTIONTZAT IZAN BEHARKO LUKE

Komiki honetan, fibrosi kistikoari buruzko informazio asko eta arrunt interesgarria eskaintzen digute. Gure ustez, haurrari zuk zeuk irakurtzea da egokiena. Behin komikia irakurrita, galdetu haurrari ea gaixotasuna zer den ulertu duen eta, ulertu ez badu, Interneteko bideoren bat jarri eta bion artean ikusi.